

EBALUATZEKO TXANTILLOIA

Ésta es una herramienta para registrar información sobre el desarrollo de las actividades y/o logro de los objetivos recogidos en el Plan Lector de Centro de acuerdo con los indicadores establecidos en la planificación (incluye un ejemplo).

JARDUERA-ARDATZA	HELBURUA	EKINTZA	BETETZE-MAILA ETA BALORAZIOA	HOBETZEKO PROPOSAMENA
Zer lan-ildorekin lotuta dago guk egindakoak?	Zer nahi genuen lortu?	Zer egin dugu hori lortzeko?	Zenbateraino bete da ekintza guk aurreikusita bezala? Zenbateraino lortu ditugu aurreikusitako helburuak? Zer alde on eta txar nabarmendu ditugu?	Zer nahi dugu aldatu Plana berritzean?
Ikasteko irakurri	Kolaboratzeko eta kooperatzeko teknikak eta estrategiak aplikatu, testuak irakurtzean irakurritakoa hobeto ulertzeko.	Bikoteka irakurtzeko programa prestatzea.	Aurreikusitako saio guztiak egin dira. Saioekin konforme samar egon dira; batez beste, 10etik 5ko puntuazioa eman dute. Ikasle batzuk motibatuta egon dira eta beste batzuk ez. Ikasleen %25k ez dauka irakurritakoa ondo ulertzeko gaitasun egokirik; horrek esan nahi du aurreko ebaluazioaren aldean hobera egin dugula (lehen %35 ziren gaitasun egokirik gabeak).	Zailtasun handiagoa duten ikasleek zer gustu eta interes dituzten jakiten saiatu behar genuke, programa hobeto egokitzeko.
	Eskolako liburutegi-mediateka gehiago erabiltzea, informazioa bilatu eta irakurtzeko leku egokiena denez, bai informazio digitalaren kasuan bai analogikoaren kasuan.	Eskolako liburutegi-mediateka ondo erabiltzeko protokoloa prestatzea, irakasleen klustro osoaren adostasunez.	Abenduan prestatu dugu protokoloa, klustroarekin ados jarrita, aurreikusitakoa baino apurtxo bat beranduago. Ez dugu gorabehera aipagarririk izan, eta protokoloa arazorik gabe ari gara aplikatzen. Lehen hezkuntzako ikasleen %60ak eta bigarren hezkuntzako ikasleen %50ak erabili dute liburutegi-mediatekako mailegu-zerbitzua ikasturtean. Ez dugu lortu bigarren hezkuntzan liburutegi-mediateka erabiltzen duten ikasleen bolumena nabarmen handitzerik (aurreko ebaluazioan %48ak erabili zuten), baina bai lehen hezkuntzan (aurreko ebaluazioan %50ak erabili zuten).	Komeni da bigarren hezkuntzako ikasleentzako motibazio-estrategiak prestatzea.
Irakurtzeko ohitura	Familiei orientazioa ematea ikasleek irakurtzeko ohitura hartzen laguntzeko.	Familientzako gomendio batzuk prestatu eta helarazi.	Gomendioen zerrenda prestatu dugu. Alabaina, hiru hilabete berandutu gara zerrenda familiei helarazten. Aurreikusitako helburua lortu dugu, baina atzeratu egin garenez, ezin jakin familiek zer iritzi duten gomendioei buruz.	Familien feed-backa biltzea komeni zaigu.
Irakurtzen ikasi	Ikasleen kontzientzia fonologikoa hobetzea.	Haur-hezkuntzako ikasleei tarteka ebaluazioa egitea, kontzientzia fonologikoa zenbateraino garatzen ari diren ikusteko.	Maiatzean egin ditugu ebaluazioak, aurreikusitakoaren arabera. Ikasleen %60ari aplikatu zaie ebaluazioa. Ez dugu ikasgela guztietan egin ebaluazioa. Ebaluazioa egiteko aurreikusitako datak ez dira lagungarri izan ikasgela guztietara iristeko. Oraindik ikasle asko daude ebaluatzeke.	Ebaluazio-datak aldatzea komeni.

Oharra: Planifikatzeko taularen segidatzat har dezakegu taula hau (aurreneko hiru zutabeak bat datoz). Taula handiegia bada, hainbat zatitan zatitu daiteke, adibidez, taula bat sor daiteke jarduerardatz edota helburu bakoitzeko.

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila. 2017

Laguntza behar izanez gero, begiratu IRAKURGUNEA atariko **ebaluatzeke baliabideak**.